

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Sarean da “Orotariko Euskal Hiztegia”

EUSKALTZAINDIAK zintzilikatu du sarean Koldo Mitxelenak osatutako *Orotariko Euskal Hiztegia*. Paperezko edizioa prestatzeko erabilitako datutegiak hartu dituzte oinarri eta Interneten bi bertsio jarri dituzte: bata PDF formatuan, testu jarraitu moduan ordenagailura jaits daitekeena, eta bestea, web bidez, sarre nagusiak bilatzeko aukera eskaintzen duena.

Euskaltzaindiak bere webgunean dioen moduan, erakundeak egin duen “egitasmo handienetako da, zalantzarik gabe, handiena ez bada”. Hiztegi historiko horretan euskaraz idatzi diren liburu

esanguratsu gehienak daude, hainbat aro eta euskalkitakoak.

Uribarriko gau eskola egoitzarik gabe

BENITOREN BLOGEAN irakurri dugu. Urteak omen dira Bilboko Uribarri auzoan euskaltegiak ateak itxi zituela eta azken bost urteetan gau eskola izan dute martxan. Doako eskolak eskaini dituzte auzotarrentzat, boluntario jardunda. Auzoko eskola bateko gelak erabili dituzte orain arte eta aurten egoitza ez dietela utziko jakin dute. Hala ere, gau eskola bertan behera uzteko asmorik ez dute antolatzaileek. Benitok ondoko hausnarketa egin du Bilbon helduek euskara

ikasteko dituzten aukerei buruz: “Bilbo izango da euskara jende heldu gehien ikasten dabilen udalerria, euskaltegi eta ikastegi asko eta jendetsuak, Boluetatik Zorrotzaraino, baina mapamundiko mundu guztietan ez dago aukera hori ziurtatuta: Uribarri, Zurbaran, Otxarkoaga, Abusu edo Errekalde lako auzo jendetsuetan ez dago helduek euskara ikasteko berariazko zentro eraturik. Alboko auzoetara edo erdigunera jaistea izaten da aukera hangoentzat. Bestelako alternatibarik sortzen ez bada behintzat, eta egon da halakorik [Uribarriko gau eskolaz ari da]”.

BAHEA

Belen Altunak *El País*en esanak: “Zergatik ez dira euskaratzen best-seller ugari, agian ez oso kalitate handikoak, baina komertzialki errentagarriak suertatu ohi direnak hizkuntza gehiengotan? Eta zergatik ez du aurkitzen bere lekua gurean hainbat literatura-generok? Nazioarteko eleberri historikoak; edo eleberri erromantikoak, genero arroxak, esaterako”.

Baiona festibala-ko antolatzaile Xan Goenagak Ipar Baionan bizi diren herritarrez: “Gaur egun ere etorkinek haiekin ekartzen dituzte kultura berri batzuk, Baionako beste auzotegietan hainbeste atzematen ez direnak. Arabiar kultura ari da sustraitzen gero eta gehiago. Charles Malegarie eskolan, arabiera mintzatzen den familien kopurua kasik %20ra heltzen da. Auzoa ezagutzeko, interesgarriena, asteazken goizetan gaskoin plazan den merkatua. Hor ikusten dira kultura desberdinak. Duela zenbait urte auzoko ikasleekin egin azterketa batean 35 hizkuntza aurkitu genituen. Baina gehienak guti-guti erabiliak dira”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gosea eta gastu militarra

Joan den larunbatean Gosea Desagerrarazteko Naziorteko Eguna izan zen, NBEk antolatuta. Egun horretan ere, Euskal Herriko hainbat kolektibo eta plataformek, aberastasunaren banaketa justua eskatu zuten. Testuinguru horretan, hainbat datu harrigarri egin ziren publiko. Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) esan zuen goseak mehatxatutakoen kopurua 963 milioitik 1.200 milioira igaro dela urte bakarrean, horietatik gehienak haurrak eta emakumeak. UNICEF eta Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, hiltzen diren bost haurretatik bat —urtean 1,5 milioi— diarreagatik hiltzen da. Hau da, hiesak, malariak eta elgorriak hirurek batera baino haur gehiago hiltzen ditu beherakoak. Euskal Herrian, berriz, txirotasunak 500.000 lagun kolpatzen ditu, hileko 1.000 eurotan dagoen pobrezia mailatik behera bizi baitira baliabiderik gabe.

Gauzak horrela, desagerrarazi al liteke gosea eta pobrezia, eta ondorioz, gaixotasun batzuk? Natur baliabideak eta bitarteko tekniko nahiz ekonomikoak egon badaude munduan orban hori eragozteko. Borondate politikoa baino ez da falta. Hirugarren munduko herrialdeak eta garapen bidean dauden egoera horretatik atera litezke familia-nekazaritzaren aldeko apustu garbia egiten badute. Hala ere, garatutako herrialdeek murriztu egin dute herrialde behartsu horiei emandako babes, krisiak krisi, gastu militarra handitzen doan bitartean. Urtero, ELGA (Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea) barruan dauden herrialdeei 365.000 milioi dolar ematen zaizkie nekazaritzarako, eta gastu militarra, berriz, bilioi bat dolarrekoa da (1.340.000 milioi). Euskal Herrian, administrazioek ere egin dezakete gehiago aberastasunaren birbanaketa justuagoaren alde: iruzur fiskala pertsegituz, aberatsei zerga handiagoak jarritz eta gastu publiko desegokiak ezabatuz.

Juan Mari Arregi

Laguntza bai, baina gakoa ENAMen baitan dago

ARNALDO OTEGI udazkenean polo soberanistarekiko mugimenduak izango zirela iragarri zuenean, ulertu zen oro har zertaz ari zen. Gatazka bortitza gatazka politikoa bihurtu behar zen, soberanisten asmoak estrategia politiko bateratu berri batean finkatu behar ziren. Baina nahasmena ere sortu zuen, besteak beste hori EAJ eta Aralar barik egin beharko zela ere iradoki zuelako uneraren batean. Eta udan ETak Logroñon eta Mallorcan egindako atentatuak nahasmena areagotu zuten. ENAMen baitan egoera oso berde zegoela antzeman zitekeen, eta udazkeneko indar metaketak gehiago itxaron beharko zuela adierazten ari zen errealitatea

Akaso ENAMen baitan egoera ez dago pentsatu bezain heldua, baina ezker abertzaleko buruzagien atxilotetak eta ondorengo erreakzioek egosten ari dena munta handikoa dela adierazten dute. Borroka armatua alboratu beharraren defendatzaileek behin eta berriro errepikatu dute azken urteetan egungo ETA Estatuaren tresna ere bilaka daitekeela, eta joan den asteko atxilotetek ikusmolde hori sendotzen dute maila batean bederen. Madrilek erakutsi du ez zaiola interesatzen ENAMek bere baitatik bidera dezan ETaren bermoldaketa politikoa, edo nola-hala prozesu horretan eragin nahi duela. Nola? Zabaldueña den hipotesia: ETak jarrai dezala bere jardunarekin eta 2011ko udal eta foru hauteskundeetan ez dadila ezer berri-rik aurkezteko aukerarik izan, eta ondorengo lau urteetan konstituzionalismoak orain ekindako bidea sendotu eta finkatzeko aukera izango luke.

ALDERDIEN LEGEAREKIN Madrilek argi ikusi du ENAMi min egin diola eta



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

muturreraino eraman nahi du bere politika hori, legez kanpoko ezker abertzalea politikoki itotzeaz gain, konstituzionalisten mauka politikoa bihurtzen delako. Orain arte gainera, ordaindu beharrekoa oso txikia izan da eta are txikiagoa Estrasburgoko Auzitegiak Espainiaren jarrera errepresiboari sostengu juridiko-politikoa eman ondoren.

Baina ez, dirudienez Madrilentzat ere dena ez da hain samur eta lineala izaten ari eta badirudi PSOEren baitan beste honako irakurketa ere egiten ari direla: "Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Antxon Etxebeste eta beste asko eztabaida bideratzen ari direla, gauzak ondo doazkiela eta akaso Madril-ek egindako planak izarra ditzakete-la? Ez jaun-andreok, esku-hartu beharra dago eta ENAMen baitan egon daitezkeen mugimenduak izan daitezela guk nahi ditugun norabidean eta ez haiek nahi dutenean". Ezker abertzaleko buruzagi askok argi utzi du atxilotuak zertan aritu diren, zer prozesu bizitzen ari den ENAMen baitan eta, Madrilek nahi duenaren aurka, nola "prozesu demokratikoarekin" aurrera jarraitu behar den.

DONOSTIAKO manifestazio arrakastatsua ENAM norabide horretan laguntzeko bultzada esanguratsua da eta abertzaletasunaren gehiengoak zer nahi duen adierazle ere bai. Protesta bai, elkertasuna ere bai, baina batez ere atxilotuen barne lanaren aldeko sostengua eta abertzaleen elkarlanaren aldeko apologia izan zen iragan larunbatekoa. ENAMek erabaki behar du prozesu honetatik nola atera nahi duen, etorkizunerako potentzial eta kapital politiko sendoa-ekin edo gabe. Dena ETaren jardunaren eremura eramatea gehiegi sinplifikatzea ere izan daiteke akaso, baina eztabaidaren ardatza hor dago gaur egun. ETak bere jardun armatuarekin jarraitzen badu, adio potentzial eta sendotasun politikoari. Borroka armatua albo batean geratzen bada, potentzial politikoa hor geratuko da; beste kontu bat izango da gero hau nola erabiltzen den.

Esperantza ei da galtzen den azkena, eta bizi den abagunea da horren adierazle. Ezker abertzalearen azken 20 urteetako historia, besteak beste, ilusio eta desilusio salmenta prozesu luze bat da: Aljer, 1992ko balizko negozioak –Munduko Futbol Txapelketa, gogoratzen?–, Alternatiba Demokratikoa, Lizarra-Garazi, Loiola... Etsipena irabazle da gaurkoz eta baikortasunerako sinesmen ahalegin handia egin behar da; abertzalegoak, alabaina, argi du nahiago duela esperantza hari mehe horri heltzea. Ez da ez nolanahikoa alderdi eta eragile abertzaleek esku artean duten erantzukizuna, baina gakoa, funtsean, ENAMen dago. Gehiengo sindikalak, bestalde, berriz erakutsi du bere heldutasuna eta indarra. Dena beharko da.